

GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2015EKO IRAILAREN 8AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.	ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 8 DE SEPTIEMBRE DE 2015.
<u>BERTARATUAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>LEHENDAKARIA</u>	<u>PRESIDENTE</u>

Imanol Landa Jauregi jn.

<u>BATZARKIDEAK</u>	<u>VOCALÉS</u>
----------------------------	-----------------------

Keltse Eiguren Alberdi And.
Joseba Arregui Martínez Jn.
Elena Coria Yanguas And.
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.
Jose Luis Landa Arteche Jn.

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamabosteko irailaren zortzian, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Alkateak, legeak eskatzen duen kidekopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a ocho de septiembre de dos mil quince, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con

da emaitza:

**300.- 2015EKO UZTAILAREN 28AN
EGINDAKO OHIKO BILERAKO
AKTA ONESTEA.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2015eko uztailaren 28ko bilerakoa, hain zuzen.

**HIRIGINTZA, OBRAK ETA
ZERBITZUAK, INGURUMENA ETA
ONDARE ETA ETXEBIZITZA**

**301.- LEHENENGO ERABILERAKO
BAIMENA ESKATUTA, GALEAKO
AUZUNeko 62A LUR-ZATIAN
ERAIKITAKO ETXEBIZITZA
BAKUNARENTZAT EMATEA.**

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

GERTAERA.- Udal honetako Gobernu Batzordeak 1995-07-27an hartutako 44. erabakiaren bidez, ARMAÑÓN, S.A. sozietateak eskatutako lizentzia ematea xedatu zen, Galeako auzuneko 62-A lur-zatian familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko, nahitaez bete beharreko baldintzak ezarriz, ur, estolderia eta argien zerbitzuei buruzkoak barne; haren bermerako 900.000 pezetatako fidantza eratzea eskatu zitzaion eta, aldi berean, Udal Diruzaintzan 1.465.912 pezeta sartzeko eskatu, edo zenbateko bereko abala, urbanizazio-obren kontzeptuan. Ur eta estolderiako zerbitzuei dagokienez, honako hau adierazten zen berariaz:

el resultado siguiente:

**300.- APROBACIÓN DEL ACTA DE
LA ANTERIOR SESIÓN
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA
28 DE JULIO DE 2015.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 28 de julio de 2015.

**URBANISMO, OBRAS Y
SERVICIOS, MEDIO AMBIENTE Y
PATRIMONIO Y VIVIENDA**

**301.- DENEGACIÓN DE LICENCIA
DE PRIMERA OCUPACIÓN PARA
LAS OBRAS EN LA VIVIENDA
UNIFAMILIAR EN LA PARCELA N°
62 A URBANIZACIÓN GALEA.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

RESULTANDO.- Que, por acuerdo nº 44, adoptado por la Comisión de Gobierno de este Ayuntamiento el 27.07.95, se dispuso la concesión de la licencia solicitada por la razón social ARMAÑÓN, S.A. para la construcción de una vivienda unifamiliar en la parcela nº 62-A de la Urbanización de La Galea, con imposición de las condiciones de obligado cumplimiento, incluidas las relativas a los servicios de agua y alcantarillado y alumbrado, para cuya garantía le fue exigida la constitución de fianza por importe de 900.000 pesetas, al tiempo que le era exigido el depósito en la Tesorería Municipal de la cantidad de 1.465.912 pesetas, o aval por dicho importe, en concepto de obras de urbanización. En

lo que se refiere a los servicios de agua y alcantarillado, expresamente se señalaba:

“UR ETA ESTOLDERIAKO ZERBITZUA: Ur eta estolderiako harguneak Asuako Juan Vallejo Real kaleko dauden instalazioetan egingo dira.

“SERVICIO DE AGUA Y ALCANTARILLADO: Las acometidas de agua y alcantarillado se realizarán a las instalaciones existentes en la calle Juan Vallejo Real de Asua.

Eraikineko euri- eta hondakin-urak bereizita txertatuko dira, dagokion putzu septikoa jarriz hondakin-urak aurretiaz arazteko 5 atmosferatako 315 milimetrotako PVC hodiarekin.

Injertará separadamente las aguas pluviales y residuales del edificio, instalando el correspondiente pozo séptico para la depuración previa de las aguas residuales con tubería de P.V.C. de 315 de 5 Atm.

Zerbitzuen kalitatea ezingo da bermatu, harik eta udalak eta Galeako Ciudad Jardineko jabe-erkidegoaren artean izenpetutako hitzarmenean aipatutako urbanizazio-obrak osatzen diren arte, azken horrek egikaritu beharrekoa. Nolanahi ere, edateko urarentzako presio-talde bat jartzea aurreikusi beharko du”.

La calidad de los servicios no podrá garantizarse hasta que sean completadas las obras de urbanización a que se hace referencia en el Convenio suscrito entre el Ayuntamiento y la Comunidad de Propietarios Ciudad Jardín La Galea y a ejecutar por esta última. En cualquier caso deberá prever la instalación de un grupo de presión para el agua potable”; y,

GERTAERA.- Udalak egindako aurretiazko eskaerari erreparatuz, harekin batera, 2014-07-28an JOSE MARÍA GOICOLEA MAGRA jaunak dokumentazioa aurkeztu zuen, obren lehen okupaziorako lizentzia lortzeko.

RESULTANDO.- Que, atendiendo al previo requerimiento municipal, el 28.07.2014 D. JOSE MARÍA GOICOLEA MAGRA acompaña documentación en orden a obtener licencia para la primera ocupación de las obras; y,

GERTAERA.- Azpiegitura eta Zerbitzuen arduradunak aurkako txostena egin zuen 2014-11-11n, ur, estolderia eta argien zerbitzuei buruzko baldintzak bete ez direla ikusirik, nahiz eta azken horri dagokionez, jabe-erkidegoak oro har hartutako konpromisoak aipatzen diren.

RESULTANDO.- Que, por el Responsable de Infraestructura y Servicios se emite informe desfavorable el 11.11.2014, ante el incumplimiento de las condiciones relativas a los servicios de agua y alcantarillado y alumbrado, si bien respecto a este último se remite a los compromisos asumidos por la Comunidad de Propietarios en su conjunto; y,

GERTAERA.- 2014-12-03ko idatziaren

RESULTANDO.- Que, mediante escrito

bidez, ANA MARIA GOICOLEA ALONSO andreak dokumentazio osagarria aurkeztu zuen, De la Rosa arkitektoak egungo saneamendua egokitzeko proposamenarekin egindako txostena barne, Juan Vallejo kalean dagoen kolektore nagusirako ur beltzen irteera berdin utziz, eta euri-urak urmael pribatu batera bideratuz.

GERTAERA.- Azpiegitura eta Zerbitzuen arduradunak 2014-12-22an beste txosten bat egin zuen honako baldintza hauek betez: "Lehen erabileraren lizentziaren aldeko txostenik ezin da egin, harik eta aurkeztutako eskaera berrian adierazitako saneamendua egokitzeko obrak egikaritzen ez diren arte; horretarako, dagokion obra baimena eskatu beharko da eta, horrekin batera, lanen aurrekontua, plano eta deskribapena aurkeztu beharko dira.

Proposatutako irtenbidea zuzentzat jotzen da, nahiz eta gogora ekartzen den sare nagusirako hargunea ø315mm-ko PVC hodia egin beharko dela, eta euri-ur guztiak urmaelera joan beharko dutela".

GERTAERA.- Udaleko arkitektoak aldeko txostena egin zuen 2015-01-29an.

GERTAERA: Interesdunak Azpiegitura eta Zerbitzuen arduradunak egindako txostenaren edukia jakin ostean, 2015-03-25eko idatziaren bidez, existitzen den kolektore orokor unitarioari egindako txertaketa eta haren ebakidurari egindako erreferentzia oro baliogabetzeko eskatu zuen; hala, iritzi du, zenbat denbora igaro den kontuan hartuz, lizentzia ematean ezarritako

de 03.12.2014, Dña. ANA MARIA GOICOLEA ALONSO acompaña documentación adicional, incluyendo el informe que emite el Arquitecto Sr. De la Rosa con propuesta de ajuste del saneamiento actual, manteniendo la salida de aguas fecales hasta el colector general situado en la calle Juan Vallejo y derivando las aguas pluviales hasta un estanque privado; y,

RESULTANDO.- Que, por el Responsable de Infraestructura y Servicios se emite nuevo informe el 22.12.2014 en los siguientes términos: "No es posible informar favorablemente la licencia de primera ocupación hasta que no se ejecuten las obras de adecuación del saneamiento descritas en la nueva solicitud presentada, para lo cual se deberá solicitar el oportuno permiso de obra que deberá venir acompañado de presupuesto, plano así como descripción de los trabajos.

La solución propuesta se considera correcta, si bien se recuerda que la acometida a la red general deberá realizarse con tubería de PVCø315mm y que la totalidad de las aguas pluviales deberán incorporarse al estanque"; y,

RESULTANDO.- Que, la Arquitectura Municipal emite informe favorable el 29.01.2015; y,

RESULTANDO.- Que, conocido por la interesada el contenido del informe del Responsable de Infraestructura y Servicios, mediante escrito de 25.03.2015, solicita sea anulada toda referencia al injerto y su sección al colector general unitario existente, entendiéndose que, habida cuenta el tiempo transcurrido, cabe predicar la prescripción de la condición impuesta

baldintzaren preskripzioa aditzera eman daitekeela, Administrazioak hirigintza-legezkotasunaren babesneurriak hartzeko aukerarik izan gabe, eta obra lizentziarekin urbanizazioko baldintzak eskatzeko aukerarik izan gabe aurrez egikaritutako urbanizazio bati dagokionez;

GERTAERA.- Azpiegitura eta Zerbitzuen arduradunak 2015-05-06an aurkako beste txosten bat egin zuen, honako hau adieraziz:

1. Urmaelean euri-urak jasotzeko irtenbideari dagokionez, hark zuzentzat jo zuen 2014ko abenduaren 22ko txostenean, nahiz eta txostenean euri-ur guztia urmaelean jaso beharko dela esaten den, hau da, ez dela kolektore orokorrera euri-urik isuri beharko ur beltzen hargunearen bidez. Beraz, euri-ur guztia urmaelean jasotzen ez bada, jaso gabeko euri-ura lur-zatiko kanpoaldean dagoen unitateko kolektore orokorrera bereizita bideratu beharko da 315 mm-ko diametroko beste hodi baten bidez.

2. Harguneko diametroari dagokionez (ø315mm-koa izango da), ez da informatzaileak egindako interpretazio okerra, baizik eta adierazten du sare orokorreko harguneari (ur beltzen hargunea) aipatutako diametroa izan beharko duela.

3. Auzuneak aztertutako saneamenduko irtenbideari dagokionez, eta hura alde batera utzita, 1995eko etxebizitza eraikitzeke lizentziak, honako baldintza hau ezartzen du argi eta garbi: "Eraikineko euri- eta hondakin-urak bereizita

al otorgamiento de la licencia, sin que la Administración pueda adoptar medidas de protección de la legalidad urbanística y sin que quepa exigir condiciones de urbanización con la licencia de obras respecto de una urbanización ejecutada con anterioridad; y,

RESULTANDO.- Que, por el Responsable de Infraestructura y Servicios se emite nuevo informe desfavorable el 06.05.2015, apuntando lo siguiente:

1. En cuanto a la solución de recogida de aguas pluviales en el estanque, ésta dio por correcta en el informe de fecha 22 de diciembre de 2014, si bien lo indicado en el informe es que deberá recogerse la totalidad de agua pluvial en el estanque, es decir, no se deberá verter ninguna cantidad de agua pluvial a través de la acometida de aguas fecales al colector general. Por lo tanto, en caso de no recoger todo el agua pluvial en el estanque, la parte de agua pluvial no recogida se deberá acometer separativamente mediante otra tubería de diámetro 315mm al colector general unitario existente en el exterior de la parcela.

2. En cuanto al diámetro de la acometida, que deberá ser de ø315mm, no se trata de ningún error de interpretación del informante sino que indica que la acometida a la red general (acometida de aguas fecales) deberá presentar el diámetro indicado.

3. En cuanto a la solución al saneamiento que la urbanización contempló e independientemente de esta, la licencia de construcción de la vivienda del año 1995, establece claramente la siguiente condición: "Injertará separadamente las aguas pluviales y residuales del edificio,

txertatuko ditu, hondakin-urak aurrez arazteko dagokion putzu septikoa jarritz, 5 atmosferatako 315 milimetrotako PVC hodiarekin"; beraz, haiek dira etxebizitzako estolderiak bete beharreko baldintzak eta, txosten honen arabera, betetzen ez dituen.

4. Hargune-hodiaren tamainari dagokionez, zerbitzu horrek irizpide hori mantentze-lanen arrazoiengatik du aipatutako lizentziaren datatik aurrera gutxienez (1995. urtea), eta ulertezina da 20 urte geroago zalantzan jarri behar izatea.

GERTAERA.- Interesdunak Azpiegitura eta Zerbitzuen arduradunak egindako txostenaren edukia zein den jakinik, 2015-05-19ko idatziaren bidez interesdunak 2015-03-25ean balioan jarritako argudioak errepikatu ditu.

GERTAERA.- Ur eta Saneamenduko arduradunak, aurrez jakinarazitakoa errepikatuz, 2015-07-14ko txostenaren bidez, honako hau adierazi zuen:

"Sare bereizgarri edo unitarioak jartzeari buruzko irizpideari eta dagoen urbanizazioari dagokionez:

2015eko maiatzaren 6ko aurreko txostenean adierazi zen moduan, eta alde batera utziz bere garaian auzuneak saneamendu unitarioko sare bat jarri zuela, 1995eko etxebizitza eraikitzeke lizentziak honako baldintza hau finkatzen du argi eta garbi: "Eraikineko euri- eta hondakin-urak bereizita txertatuko ditu, hondakin-urak aurrez arazteko dagokion putzu septikoa jarritz, 5 atmosferatako 315 milimetrotako PVC hodiarekin"; beraz, haiek dira etxebizitzako estolderiak

instalando el correspondiente pozo séptico para la depuración previa de las aguas residuales, con tubería de PVC de 315mm de 5 Atm", por lo tanto, esas son las condiciones que el alcantarillado de la vivienda debe de cumplir y que, a fecha del presente informe, no cumple.

4. En cuanto a la dimensión de la tubería de acometida, este Servicio dispone de ese criterio, por razones de mantenimiento, desde mínimo la fecha de la licencia de referencia, año 1.995, y no se entiende que deba poner en duda 20 años más tarde.

RESULTANDO.- Que, conocido por la interesada el contenido del informe del Responsable de Infraestructura y Servicios, mediante escrito de 19.06.2015 reitera la interesada los argumentos hechos valer el 25.03.2015; y,

RESULTANDO.- Que, la Responsable de Agua y Saneamiento, con reiteración del o informado anteriormente, mediante informe de 14.07.2015 manifiesta:

"En relación al criterio sobre la instalación de redes separativas o unitarias y a la urbanización existente:

Tal y como se indicó en el informe anterior de fecha 6 de mayo de 2015, e independientemente de que, en su día, la urbanización instalase una red de saneamiento unitaria, la licencia de construcción de la vivienda del año 1995, establece claramente la siguiente condición: "Injertará separadamente las aguas pluviales y residuales del edificio, instalando el correspondiente pozo séptico para la depuración previa de las aguas residuales, con tubería de PVC de 315mm de 5 Atm", por lo tanto,

bete beharreko baldintzak, eta txosten honen arabera, betetzen ez dituen.

Etxeetako hargune guztiei eskatutako diametroari buruzko irizpideari dagokionez:

2015eko maiatzaren 6ko aurreko txostenean adierazienez, irizpide horri mantentze-lanen arazoengatik eusten zaio aztertzen ari garen eraikitzeo lizentzia-data baino lehenagotik (1995). Jakina, dimentsioak ez dio inolako kalkuluri erantzuten (horregatik ez da kalkulurik aurkeztu).

Ezin da jakin saneamenduko sareak mantentzeko zer sistema erabiltzen diren interesdunak aipatutako udalerrietan, nahiz eta udalerririk honetan ondorengo beharra ikusi den: harguneez gutxienez $\varnothing 315\text{mm}$ -ko diametroa izan behar dutela. Jakina, irizpide hori irizpide tekniko pertsonala da (bibliografia askotan oso zabaldua egon arren), baina Ur eta Saneamenduko Udal Zerbitzu honen esperientziak behar besteko babesa ematen dio.

Lehen okupazioko lizentziaren legegoinarria etxebizitza-baldintzak batzen direla egiaztatzea denez, horri dagokionez:

Lehen okupazioa lortzeko, beharrezkoa da eraikitzeo lizentzian ezarritako baldintzak beteta izatea, eta hain zuzen lur-zatia saneatzeko ezarritako baldintzak ez betetzeak eragozten du eskatutako lizentzia ematea.

esas son las condiciones que el alcantarillado de la vivienda debe de cumplir y que, a fecha del presente informe, no cumple.

En relación al criterio sobre el diámetro exigido todas las acometidas domiciliarias:

Tal y como se indicó en el informe anterior de fecha 6 de mayo de 2015, este criterio es mantenido por razones de mantenimiento desde antes de la fecha de la licencia de construcción que nos ocupa (1.995). Evidentemente, la dimensión no responde a cálculo alguno (es por esto que no se ha aportado ningún cálculo).

Se desconoce qué sistemas se utilizan para el mantenimiento de redes de saneamiento en los municipios que menciona la interesada, si bien en este municipio se ha observado la necesidad de que las acometidas dispongan de un diámetro mínimo de $\varnothing 315\text{mm}$. Evidentemente, este criterio es un criterio técnico personal (aunque muy extendido en numerosa bibliografía) pero suficientemente avalado por la experiencia de este Servicio Municipal de Agua y Saneamiento.

En relación a que la licencia de primera ocupación tiene por fundamento legal comprobar que se reúnen las condiciones de vivienda:

Para obtener la primera ocupación es necesario haber cumplido con las condiciones establecidas en la licencia de construcción, y es precisamente el no cumplimiento de las condiciones establecidas para el saneamiento de la parcela, lo que impide la concesión de la licencia solicitada.

Gainerako puntuei dagokienez:

Zerbitzu tekniko honek ez du haiei eransteke ezer, teknikoak baino gai legalak direlako gehiago”.

OINARRIA.- Emakidan ezarritako baldintzen artean (Udal honen Gobernu Batzordeak 1995-07-27an hartutako 44. erabakia), ur eta estolderiako zerbitzuei lotutakoa dago honako baldintza hauetan:

“UR ETA ESTOLDERIAKO ZERBITZUA: Ur eta estolderiako harguneak Asuako Juan Vallejo Real kalean dauden instalazioetan egingo dira.

Eraikineko euri- eta hondakin-urak bereizita txertatuko dira, dagokion putzu septikoa jarritz hondakin-urak aurretiaz arazteko 5 atmosferatako 315 milimetrotako PVC hodiarekin.

Zerbitzuen kalitatea ezingo da bermatu, harik eta udalak eta Galeako Ciudad Jardineko jabe-erkidegoaren artean izenpetutako hitzarmenean aipatutako urbanizazio-obra osatzen diren arte, azken horrek egikaritu beharrekoa. Nolanahi ere, edateko urarentzako presio-talde bat jartzea aurreikusi beharko du”.

Baldintza hori ezartzeak lizentzia ukatzea ekiditen du; izan ere, hirigintzako lizentziaren erreguzkoa izaera onartuta, jurisprudentiak hura «conditiones iuris» sartuz emateko aukera onartzen du, hau da, lizentzia ukatzea ekidingo duten klausulak bertan indarrean dagoen antolamendutik sortutako eskakizunak

En relación al resto de puntos:

Este Servicio Técnico no tiene nada que añadir a los mismos pues se trata más de temas legales que técnicos”; y,

CONSIDERANDO.- Que, entre las condiciones impuestas al otorgamiento de la precedente licencia de obras (acuerdo nº 44, adoptado por la Comisión de Gobierno de este Ayuntamiento el 27.07.95), se encuentra la relativa a los servicios de agua y alcantarillado en los siguientes términos:

“SERVICIO DE AGUA Y ALCANTARILLADO: Las acometidas de agua y alcantarillado se realizarán a las instalaciones existentes en la calle Juan Vallejo Real de Asua.

Injertará separadamente las aguas pluviales y residuales del edificio, instalando el correspondiente pozo séptico para la depuración previa de las aguas residuales con tubería de P.V.C. de 315 de 5 Atm.

La calidad de los servicios no podrá garantizarse hasta que sean completadas las obras de urbanización a que se hace referencia en el Convenio suscrito entre el Ayuntamiento y la Comunidad de Propietarios Ciudad Jardín La Galea y a ejecutar por esta última. En cualquier caso deberá prever la instalación de un grupo de presión para el agua potable”; y,

La imposición de tal condición evita la denegación de la licencia pues, reconocido el carácter reglado de la licencia urbanística, la jurisprudencia viene admitiendo la posibilidad de su otorgamiento con introducción de «conditiones iuris», es decir cláusulas que eviten la denegación de la licencia

jasoz (aurrez urbanizatzeko betebeharra eskatzen duena eraikitze lizentzia eskuratzeko). Hori guztia proportzionaltasunaren printzipioaren ondorioz, eta oro har oinarria "helburu"-aren garrantzian duena administrazioko egintzaren elementu gisa (jabetza-eskubideko ahalmenak muga batzuen barnean egikaritzeko direla ziurtatzea, eta hirigintzako antolamenduan ezarritako betebeharrak betez).

OINARRIA.- Emakida-egintza hori ez da aurkaratu; hala, egintza hori irmo bihurtu da, eta onartua.

OINARRIA.- Lehen okupazioko lizentziaren helburua honako hau egiaztatzea da, Toki Korporazioen Zerbitzuaren Araudiaren 21.2, d artikulua araberak: "Eraikina erabilera jakin baterako den, gune egokian egoteagatik eta segurtasun nahiz osasungarritasuneko baldintza teknikoak batzeagatik eta, hala badagokio, eraikitzaileak, aldi berean, urbanizazioa egiteko konpromisoa bete duen". Finean, haren helburua da, egindako obra bere garaian emandako obra edo eraikitze lizentziaren euskarri den proiektuarekin alderatzea, eta baita eraikuntzako oinarrizko lizentzian ezarritako legezko baldintzak bete diren ere; izan ere, lehen okupazioko lizentzia honako honen adierazpide teknikoa da: eraikina edo instalazioa proiektu eta tresna osagarrietan jasotako preskripzioei egokitzen zaizkion, obra edo eraikitze lizentzia emateko oinarrizko egintzarako euskarri izan zirenak. Udalaren ahalmenak bere zerbitzu teknikoek egindako egiaztatze-lanera mugatu behar dira, hau da,

mediante la incorporación a ésta de exigencias derivadas del ordenamiento vigente (que exige el previo cumplimiento del deber de urbanizar para optar a la licencia de edificación). Todo ello como consecuencia del principio de proporcionalidad que genéricamente tiene su fundamento en la importancia del «fin» como elemento del acto administrativo (asegurar que las facultades del derecho de propiedad se van a ejercitar dentro de los límites y con cumplimiento de los deberes establecidos en el ordenamiento urbanístico); y,

CONSIDERANDO.- Que, dicho acto concesional no ha sido objeto de impugnación, habiendo devenido firme y consentido; y

CONSIDERANDO.- Que, la licencia de primera ocupación tiene por objeto, según el art. 21.2, d) del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales, comprobar «si el edificio puede destinarse a determinado uso, por estar situado en zona apropiada y reunir condiciones técnicas de seguridad y salubridad y, en su caso, si el constructor ha cumplido el compromiso de realizar simultáneamente la urbanización». En definitiva tiene por objeto confrontar la obra realizada con el proyecto que sirve de soporte a la licencia de obra o de edificación en su día concedida y también si se han cumplido las condiciones lícitas en su caso establecidas en la licencia base de edificación, puesto que la licencia de primera ocupación es expresión técnica de la necesaria comprobación de si el edificio o instalación se acomoda a las prescripciones contenidas en el proyecto e instrumentos complementarios que en su día sirvieron de soporte al acto base de concesión de la licencia de obra o edificación. Las facultades del

eraikitako eraikuntzak obra lizentziako legezko proiektu eta baldintzei egokitzen zaizkien.

Aztertzen ari garen kasuan, "Azpiegitura eta Zerbitzuen" Sailak ezarritako baldintzak ez direla betetzen jakinarazten du, ur eta estolderiako zerbitzuei dagokienez.

OINARRIA.- Administrazioaren isiltasunagarik lehen okupazioko lizentzia eskuratzeari dagokionez, Auzitegi Gorenak 2009ko urtarrilaren 28an emandako epaiak (kasazio-errekurtsoaren bidez emana 45/2007 Legearen interespean), gaia behin betiko erabaki du, ondorengo legedoktrina emanez: "Lurzoru eta Hiri Antolamenduaren Araubideari buruzko Legearen Testu Bateginaren 242.6 artikulua, ekainaren 26ko 1/1992 Errege Dekretu Legegileak onartua, eta Lurzorua Legearen Testu Bateginaren azken paragrafoko 8.1 b) artikulua, ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretu Legegileak onartua, estatuko oinarrizko legeen maila duten arauak dira; haien arabera eta estatuko aginduan xedatutakoa betez, oinarrizkoa ere, lurralde edo hirigintzako antolamenduaren aurkako lizentziak ezingo dira administrazioaren isiltasunagatik eskuratutakotzat jo; estatuko agindu hori azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzkoaren, 43.2 artikuluan jasota dago, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoa".

Hori guztia bat dator ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoaren, 211. artikulua 1. idatz-

Ayuntamiento han de limitarse a que por sus Servicios Técnicos se compruebe si los edificios construidos se ajustan o acomodan a los respectivos proyectos y condiciones lícitas de la licencia de obra.

Por lo que al caso que nos ocupa se refiere, desde "Infraestructura y Servicios" se informa del incumplimiento de las condiciones impuestas, en lo que a los servicios de agua y alcantarillado se refiere; y,

CONSIDERANDO.- Que, respecto a la obtención de la licencia de primera ocupación por silencio administrativo, la sentencia del Tribunal Supremo de 28 de enero de 2009, dictada en el recurso de casación en interés de la ley número 45/2007, ha venido a zanjar de manera definitiva la cuestión, dictando la siguiente doctrina legal: «que el artículo 242.6 del Texto Refundido de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/1992, de 26 de junio, y el artículo 8.1 b), último párrafo, del Texto Refundido de la Ley de suelo aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, son normas con rango de leyes básicas estatales, en cuya virtud y conforme a lo dispuesto en el precepto estatal, también básico, contenido en el artículo 43.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificado por Ley 4/1999, de 13 de enero, no pueden entenderse adquiridas por silencio administrativo licencias en contra de la ordenación territorial o urbanística».

Ello es coherente con el apartado 1º del Art. 211 de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, que excepciona la regla general

zatiarekin; haren arabera, isiltasun positiboaren arau orokorra salbuesten da lizentziaren xedeak araudi aplikagarria hausten duenean, honako hau adieraztean:

“1.- Hirigintzako lizentzia eskuratzeak egintzak nahiz eragiketak legitimatzen ditu, bai eta dagozkien erabilerak nahiz jarduerak ezarri eta garatzea ere. Ezingo dira inolaz ere eskuratu, administrazio isiltasun positiboagatik, hirigintzako antolamenduarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideengatik edo indarrean dagoen legeriarekin”.

Ildo beretik jotzen du estatuko legegileak, ekainaren 20ko 2/2008 Errege Dekretu Legegileari buruzkoaren, lurzoruaren legearen testu bategina onartzen duenari buruzkoaren, 9.7 artikuluan honako hau dioenean: “7. Eraikitzekeo egintza orok dagokion administrazioaren adostasun, onarpen edo baimeneko egintza eskatuko du, lurralde eta hirigintzako antolamenduko legeriaren arabera, eta haren ukapena arrazoitu egin beharko da. Lurralde edo hirigintzako antolamendua hausten duten ahalmen edo eskubideak ezingo dira administrazioaren isiltasunagatik eskuratutakotzat jo”.

Beraz, udal teknikariek egiaztatu ostean obrak aurreko lizentziari ez zaizkiola egokitzen, ezin da isiltasunagatik eskuratu Auzitegi Gorenak adierazitako doktrinaren arabera.

OINARRIA.- Horrenbestez, eskatutako lehen okupazioko lizentzia ukatuko da, eta egindako alegazioak ezetsiko dira.

del silencio positivo cuando el objeto de la licencia contraviene la normativa de aplicación, al señalar:

“1.- La obtención de la licencia urbanística legitima la ejecución de los actos y las operaciones, así como la implantación y el desarrollo de los usos y las actividades correspondientes. En ningún caso podrán adquirirse, ni aun por silencio administrativo positivo, facultades o derechos disconformes con la ordenación urbanística ni con la legalidad vigente”.

En la misma línea se pronuncia el legislador estatal cuando en el Art. 9.7 del Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de suelo, señala: “7. Todo acto de edificación requerirá del acto de conformidad, aprobación o autorización administrativa que sea preceptivo, según la legislación de ordenación territorial y urbanística, debiendo ser motivada su denegación. En ningún caso podrán entenderse adquiridas por silencio administrativo facultades o derechos que contravengan la ordenación territorial o urbanística”.

Por tanto, al haberse constatado por los técnicos municipales que no se ajustan las obras a la precedente licencia, no es posible la adquisición por silencio conforme a la doctrina expresada del Tribunal Supremo.

CONSIDERANDO.- Que, así las cosas, procede la denegación de la licencia de primera ocupación solicitada, con desestimación de las alegaciones formuladas; y,

OINARRIA.- Tokiko Gobernu Batzordeak gai honetarako eskumena du, Alkatetzak 2015-06-16ko bilkuran onartutako 2541/2015 Dekretu bidez baimendutako eskuordetza tartean egonik.

IKUSITA.- Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legea, apirilaren 2koa; Euskal Autonomia Erkidegoko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa; 2/2008 Errege Dekretu Legegilea, ekainaren 20koa, lurzorua legearen testuategina onartzen duena; administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko 30/92 Legea, azaroaren 26koa; Getxoko udalerriko hiri-antolamendurako plan orokorra; eta gai horri aplikatu beharreko gainerako legeria.

Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak, Ondare eta Etxebizitza Arloko arduradunak eskatuta, Tokiko Gobernu Batzordeari honako hau igortzen zaio kontuan har dezan

ERABAKI PROPOSAMENA:

JOSE MARÍA GOICOLEA MAGRA jaunak eta ANA MARIA GOICOLEA ALONSO andreak eskatutako lehen okupazioko lizentzia ukatzea, aurreko guztiarekin bat etorriz, eta egindako alegazioak ezetsiz, Galeako auzuneko 62-A lur-zatian familia bakarreko etxea eraikitzeko obrak egiteko.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea honako hau adieraziz: haren aurka, EAeko Auzitegi Nagusiko ADMINISTRAZIOAREKIKO

CONSIDERANDO.- Que, la Junta de Gobierno Local es competente para la presente cuestión, al mediar delegación autorizada por Decreto de la Alcaldía nº 2541/2015, aceptada en sesión de 16.06.2015; y,

VISTOS.- Ley 7/85, de 2 de Abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local; Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco; Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la ley de suelo; Ley 30/92, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común; Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Getxo; y demás legislación de aplicación a la materia.

A instancia del Responsable del Area de Urbanismo, Obras y Servicios, Patrimonio y Vivienda, se eleva a consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO.- De conformidad con cuanto antecede, y con desestimación de la alegaciones formuladas, denegar la licencia de primera ocupación solicitada por D. JOSE MARÍA GOICOLEA MAGRA y DÑA. ANA MARIA GOICOLEA ALONSO para las obras de construcción de una vivienda unifamiliar en la parcela nº 62-A de la Urbanización de La Galea.

SEGUNDO.- Notificar este acuerdo a los interesados con expresa indicación de que frente al mismo, podrán interponer RECURSO

AUZIEN EPAITEGIAREN aurrean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIERREKURTSOA jarri ahalko duela, hura jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, uztailaren 13ko 29/98 Legearen 8 eta 46. artikuluekin bat etorriz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena.

Nolanahi ere, hautazko izaeraz eta aipatutako administrazioarekiko auzierrekurtoaren aurretik, hura eman zuen organo beraren aurrean, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA jarri ahalko du, jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, HILABETEKO epean.

Nolanahi ere, bere eskubideak hobeto babesteko egokia iruditzen zaion beste edozein egintza edo errekurto aurkeztu ahalko du.

302.- LEHENENGO ERABILERAKO BAIMENA ESKATUTA, BIRZATIKETAKO PROIEKTUAREN ONDORIOZ KORTIÑE-10 URBANIZATZEKO GAI DEN LURZORUAN SORTUTA, RA-XI-1-2-3 LUR-ZATIETAN ERAIKITAKO ETXEBIZITZENTZAT EMATEA (BELATZA KALEA, 41, 43, 45, 47, 49 ETA 51; KAIOA KALEA, 9 ETA 7; ARRANOA KALEA, 10, 12 ETA 14 ; ETA ZOZOA KALEA, 2D).

Hirigintza, Obra, Zerbitzu, Ondare eta Etxebizitza Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.- JOSE MANUEL RUIZ AGUIRRE jaunari obren lehen

CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO ante el JUZGADO DE LO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO que corresponda del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar desde el día siguiente al de su noificación, en concordancia con los arts. 8 y 46 de la Ley 29/98 de 13 de Julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

No obstante lo anterior, con carácter potestativo y previo al Recurso Contencioso Administrativo señalado, podrá interponer RECURSO DE REPOSICION, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de UN MES a contar desde el día siguiente al de la fecha de su notificación.

Todo ello sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estime oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

302.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE PRIMERA UTILIZACIÓN DE LAS OBRAS EN LAS PARCELAS RA-XI-1-2-3, RESULTANTES DEL PROYECTO DE REPARCELACIÓN APROBADO EN EL SECTOR DE SUELO APTO PARA URBANIZAR 10-KORTIÑE (C/BELATZA N° 41,43,45,47,49 Y 51; KAIOA 9 Y 7; ARRANOA N° 10,12 Y 14 Y ZOZOA N° 2 D).

A propuesta del concejal responsable del Área de Urbanismo, Obras, Servicios, Patrimonio y Vivienda, se acordó:

PRIMERO.- Conceder a D. JOSE MANUEL RUIZ AGUIRRE, como

erabilerarako eskatutako lizentzia ematea. RA-XI-1-2-3 lur-zatietako bi familiako hamabi etxebizitza sustatzeko zati komuneko jabe-erkidegoaren lehendakaria da, eta etxebizitza horiek 10-KORTIÑE urbanizatzeko gaitutako lurzoruaen sektorerako (Belatza kalea 41, 43, 45, 47, 49 eta 51; Kaio kalea 7 eta 9; Arrano kalea 10, 12 eta 14; eta Zozoa kalea 12D) onartutako birpartzelazio-proiektutik sortutakoak dira. Etxebizitza horiek aurreko lizentziaren babesean eraiki dira, Gobernu Batzordeak, hurrenez hurren, 1998-01-27an eta 2000-06-27an hartutako 104. eta 696. erabakiz emandako lizentzia.

Berariaz jasota geratzen da nahitaez laga beharreko azalerak aurrez izapidetutako birpartzelazio-proiektuan identifikatu direla; baimentzen den aipatutako lizentzia proiektu horretatik ondorioztatutako lur-zati garbiari dagokio.

BIGARRENA.- Interesdunei honako hau eskatzea: Udaleko Azpiegitura eta Zerbitzuen arduradunak adierazitako akatsak konpon ditzatela, eta haien ondorioetarako egindako txostenaren kopia igorriko zaiela; hala, Udal Diruzaintzan utzitako 48.080,97 euroko banku-abala (3/1998/1/000574 zenbakia) atxiki beharko da, harik eta aipatutako akatsak erabat konpontzen diren arte.

HIRUGARRENA.- Ekonomia Arloak dagokion likidazioa egingo du, kontuan hartuz obraren egikaritze materialaren aurrekontua 1.170.596 euro dela, egikaritze-proiektutik eta ondoren baimendutako aldatetik ondorioztatzen denez.

Presidente de la Comunidad de Propietarios de la Parte Común de la promoción de doce viviendas vivienda bifamiliares y garajes en las parcelas RA-XI-1-2-3 resultantes del proyecto de Reparcelación aprobado para el Sector de Suelo Apto para Urbanizar 10-KORTIÑE (calles Belatza nº 41, 43, 45, 47 49 y 51; Kaio 9 y 7; Arranoa nº 10, 12 y 14; y Zozoa nº 2D), la licencia solicitada para la primera utilización de las obras, construidas al amparo de la precedente licencia, concedida por acuerdos nº 104 y 696, adoptado por la Comisión de Gobierno los días 27.01.98 y 27.06.2000, respectivamente.

Se hace constar de forma expresa que las superficies de obligada cesión han quedado identificadas en el proyecto de reparcelación previamente tramitado, refiriéndose la licencia que se autoriza a la parcela neta resultante del citado proyecto.

SEGUNDO.- Requerir a los interesados para que sean subsanadas las deficiencias apuntadas por el Responsable de Infraestructura y Servicios Municipal, a cuyos efectos les será remitida copia del informe emitido, debiendo ser retenido el aval bancario que, por importe de 48.080,97 euros, fuera depositado en la Tesorería Municipal con el nº 3/1998/1/000574, hasta la completa subsanación de las citadas deficiencias.

TERCERO.- Por el Área Económica será realizada la oportuna liquidación, teniendo en cuenta que el Presupuesto de Ejecución Material de la obra, tal y como se desprende del proyecto de ejecución y de la modificación posteriormente autorizada, asciende a 1.170.596 euros.

Gai-zerrendaz kanpo, larrialdiko deklarazioa aurrez eginda, beraz, "quorum" zegoela erabakita, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuko 51. artikuluan aurreikusi bezala, ondorengo erabakiak sartu dira:

**303.- GIZARTE-ZERBITZUEN
ARLORAKO LEGE-
AHOLKULARITZAKO
ZERBITZUAREN PREZIOEN
BERRIKUSPENA ONARTZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki zen:

LEHENENGOA: PATRICIA VERDES CEARRA andreari (NAN: 30.559.473-V) prezioen berrikuspena onartzea 2013/11/02tik aurrera GETXOKO UDALEKO GIZARTE-ZERBITZUEN ARLORAKO LEGE-AHOLKULARITZA ZERBITZURAKO, % 0,34ko igoyerarekin bat etorriz (% 0,4aren % 85ari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoak 2012ko urritik 2013ko urrira izandako aldaketa) ; hala, urteko eguneratutako zenbatekoa 5.849,82 izango da gehi BEZaren % 21i dagozkion 1.228,46 euro.

BIGARRENA: PATRICIA VERDES CEARRA andreari (NAN: 30.559.473-V) prezioen berrikuspena onartzea 2014/11/02tik aurrera GETXOKO UDALEKO GIZARTE-ZERBITZUEN ARLORAKO LEGE-AHOLKULARITZA ZERBITZURAKO, % 0,17ko igoyerarekin bat etorriz (% 0,2aren % 85ari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoak 2013ko urritik

Fuera del Orden del Día, previa declaración de urgencia, y por lo tanto, con el "quorum" prevenido en el artículo 51 del Real Decreto Legislativo 781/86, de 18 de abril, se acordó incluir los siguientes acuerdos:

**303.-APROBACIÓN DE LA
REVISIÓN DE PRECIOS DEL
SERVICIO DE ASESORAMIENTO
LEGAL PARA EL ÁREA DE
SERVICIOS SOCIALES.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar la revisión de precios a Dña. PATRICIA VERDES CEARRA con DNI: 30.559.473-V a partir del día 02/11/2013 para el SERVICIO DE ASESORAMIENTO LEGAL PARA EL AREA DE SERVICIOS SOCIALES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, de acuerdo con el incremento del 0,34% (correspondiente al 85% de 0,4% variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca desde el mes de octubre de 2012 al mes de octubre de 2013), resultando un importe anual actualizado de 5.849,82.- euros anuales más 1.228,46.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

SEGUNDO: Aprobar la revisión de precios a Dña. PATRICIA VERDES CEARRA con DNI: 30.559.473-V a partir del día 02/11/2014 para el SERVICIO DE ASESORAMIENTO LEGAL PARA EL AREA DE SERVICIOS SOCIALES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, de acuerdo con el incremento del 0,17% (correspondiente al 85% de 0,2%

2014ko urrira izandako aldaketa); hala, urteko eguneratutako zenbatekoa 5.859,76 izango da gehi BEZaren % 21i dagozkion 1.230,55 euro.

HIRUGARRENA: 2013/11/02tik 2014/11/01era GETXOKO UDALEKO GIZARTE-ZERBITZUEN ARLORAKO LEGE-AHOLKULARITZA ZERBITZURAKO prezioen berrikuspenari aurre egiteko 23,98 euroko beharrezko gastua ordaintzeko baimena ematea eta xedatzea.

LAUGARRENA: 2014/11/02tik 2015/11/01era GETXOKO UDALEKO GIZARTE-ZERBITZUEN ARLORAKO LEGE-AHOLKULARITZA ZERBITZURAKO prezioen berrikuspenari aurre egiteko 36,02 euroko beharrezko gastua ordaintzeko baimena ematea eta xedatzea, ondorengo xehatzearen arabera:

2014/11/02tik 2015/11/01erako
ALDIA

9,94 euro gehi BEZaren %21i dagozkion 2,09 euro.

- 2013ko berrikuspenaren ondorioetatik 2014-2015 ekitaldiko luzapenean

19,82 euro gehi BEZaren %21i dagozkion 4,17 euro.

304.- GIZARTE ETA HEZIKETA ARLOKO ESKU-HARTZEA ETA ESKU-HARTZE PSIKOSOSIALEKO ZERBITZUKO PREZIOEN BERRIKUSPENA ONARTZEA.

variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca desde el mes de octubre de 2013 al mes de octubre de 2014), resultando un importe anual actualizado de 5.859,76.- euros anuales más 1.230,55.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

TERCERO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 23,98.-€ I.V.A. Incluido, para hacer frente a la revisión de precios del SERVICIO DE ASESORAMIENTO LEGAL PARA EL AREA DE SERVICIOS SOCIALES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO desde el 02/11/2013 al 01/11/2014.

CUARTO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 36,02.-€ I.V.A. Incluido, para hacer frente a la revisión de precios del SERVICIO DE ASESORAMIENTO LEGAL PARA EL AREA DE SERVICIOS SOCIALES DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO desde el 02/11/2014 al 01/11/2015, conforme al siguiente desglose:

PERIODO 02/11/2014 al
01/11/2015

9,94.-euros más 2,09.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

- Por el efecto de la revisión 2013 en la prórroga del ejercicio 2014-2015

19,82.-euros más 4,17.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

304.- APROBACIÓN DE LA REVISIÓN DE PRECIOS DEL SERVICIO DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA Y SICOSOCIAL.

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki zen:

LEHENENGOA: AGINTZARI, S. COOP. DE INICIATIVA SOCIAL” sozietateari (IFK: F-48481923) prezioen berrikuspena onartzea 2014/09/29tik aurrera GETXOKO UDALERRIAN GIZARTE ETA HEZIKETA ARLOKO ESKU-HARTZEA ETA ESKU-HARTZE PSIKOSOSIALEKO ZERBITZURAKO, % 0,085eko igoyerarekin bat etorriz (% 0,1aren % 85ari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoak 2013ko irailetik 2014ko irailera izandako aldaketa); hala, urteko eguneratutako zenbatekoa 308.762,23 izango da BEZa salbuetsita.

BIGARRENA: Prezioen berrikuspen horri aurre egiteko, 262,23 euroko beharrezko gastua, BEZa salbuetsita, ordaintzeko baimena ematea eta xedatzea.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakariak bilkura egun bereko goizeko bederatzia eta hogeita minutu direnean eman du bukatutzat. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar la revisión de precios a la razón social “AGINTZARI, S. COOP. DE INICIATIVA SOCIAL”, con C.I.F. nº F-48481923 a partir del día 29/09/2014 para el SERVICIO DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA Y SICOSOCIAL EN EL MUNICIPIO DE GETXO, de acuerdo con el incremento del 0,085% (correspondiente al 85% de 0,1 variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca desde el mes de septiembre de 2013 al mes de septiembre de 2014) resultando un importe anual actualizado para este servicio de 308.762,23.-euros anuales exento de I.V.A.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 262,23.-€, exento de I.V.A. para hacer frente a la citada revisión de precios.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Presidente levantó la sesión siendo las nueve horas y veinte minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.